


FEVAS



NAHI DUGUN HEZKUNTZA





Dokumentu hau adimen-desgaitasuna, autismoaren espektroko nahasmenduak eta garuneko paralisia dituzten ikasleen 40 gurasoren hausnarketaren emaitza da. Guraso horiek FEVAS Plena Inclusión Euskadik joan den abenduaren 2an antolatu zuen “Nahi dugun hezkuntza” topaketan hartu zuten parte. Familia horiek, FEVAS Plena inclusión Euskadi elkarte-mugimendua osatzen dutenen lagin adierazgarria, beren ikuspegia ez ezik, beste familia batzuen ere helarazi zuten foro horretan. Izan ere, bakoitzak bere erakundearen, premiak diagnostikatzeko eta aukerak identifikatzeko hainbat gune partekatzen dituzte haiekin.

Familia horiek, heterogeneoak izanik, ondo ezagutzen dute sistema, euren seme-alabak hezkuntza-modalitate batetik baino gehiagotik igaro direlako: gela arrunta, gela egonkorra, zereginak ikasteko gela, ikastetxe arrunta edo hezkuntza bereziko zentroa. Ezagutza, ikuspegi eta esperientzia horretatik, bi gai garrantzitsuren inguruan eztabaidatu zuten: alde batetik, Euskal Hezkuntza Sistemak adimen-desgaitasuna, garun-paralisia eta autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten ikasleentzat dituen oztopoak, eta, bestetik, hezkuntza inklusiboan hobetzeko eta aurrera egiteko gakoak.

Beren iritzia jasotzeko, taldekako dinamika parte-hartzailea garatu zen: Haur Hezkuntzan eskolatutako seme-alabak dituzten familiak; Lehen Hezkuntzan eskolatutako seme-alabak dituzten familiak; Bigarren Hezkuntzan eskolatutako seme-alabak dituzten familiak; eta Bigarren Hezkuntzaren ondorengo etapatan seme-alabak dituzten familiak.

Planteatutako bi gaietan, bateratze-lanak agerian utzi zuen adostasuna eta antzeko begirada zutela elementu nuklearretan. Horregatik, eta etapa bakoitzean ideiak ez errepikatzeko, dokumentu honek honela egituratzen du informazioa: lehenengo atalean familiek hautemandako oztopoak zehazten dira, eta, bigarrenean, hobetzeko zenbait gako zehazten dira, sistemaren, ikastetxearen edo ikasgelaren eskumenekoak diren berezita.





Enpatia falta da. Gaur egun, profesional guztiek izango dute harremana desgaitasuna duten ikasleekin.”

Batzuetan familiek ez dugu alternatibarik. Hauxe da hezkuntzarako eskubidea gauzatzeko aurkitzen dugun lehen oztopoa.

Bizi zaren eremuaren arabera, aldatu egiten dira eskolatzeko aukerak: gela arrunta, egonkorra, partekatua edo hezkuntza berezikoak bakarrik. Ez da bidezkoa.

Gure seme-alabak hazi ahala, sistema arruntak bota egiten gaitu. Arrazoi batengatik edo bestearengatik, inklusioa zailagoa da. Familiak bakarrago geratzen ari gara.

Bigarren hezkuntzan, aurreko etapetan izandako kezka, borroka eta frustrazio berberak errepikatzen dira, baina azkenean familiek beren gain hartzen dituzte.





Hezkuntzak kostu handia du gure osasun mentalean.

Familiak ekarpenak egin ditzakegu eta egin nahi ditugu, seme-alabak ezagutzen ditugulako. Irakasleei ez diegu esan nahi zelan egin behar duten euren lana. Ez gara arrotzak. Ulertzen dugu batzuek eta besteek onena bilatzen dugula umeentzat.

Zentro bat ez da txarragoa bullying kasu gehiago dituelako; agian hobea da, lehenago detektatzen duelako.

LHko ikastetxe gehiago eta egokitutako beste aukera batzuk behar ditugu, ikasleek aurrera egiten jarrai dezaten.

Badaude lanean ondo ari diren ikastetxe asko ere, eta gure seme-alabek ateak irekitzen dituzte. Gure borroka ez da alferrikakoa.





Euskal hezkuntza-sisteman adimen-desgaitasuna, garun-paralisia eta autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten ikasleentzat dauden oztopoak

- Politikak eta legeria interpretatzea eta aplikatzea, baliabideak antolatzea eta jardunbideak hedatzea ez dira homogeenok lurralde guztietan. Aldeak ikusten dira bizilekuaren, kokapenaren eta ikastetxeen prestasunaren arabera. Familiek ikasleen aukera-berdintasunari eta ekitateari eragiten dietela hautematen dituzten aldeak sor ditzakete.
- Familiek, oro har, ez dakite zein helburuk bideratzen duten berritzeguneen jarduna eta nola antolatzen duten koordinazioa ikastetxeekin.
- Ikastetxea aukeratzeak zailtasunak ditu familientzat, batez ere zenbait herri edo eremutan.
- Pertsona bakoitzari dagozkion baliabideen esleipenean, ez da beti bakoitzaren errealitatea erabat onartzen, eta horrek familien gogobetetze-eza areagotzen du. Familiek premia indibidualak hobeto aitortzea eskatzen dute, laguntzak doitzeko eta orekatzeko. Oraindik ere ezjakintasun handia ikusten da laguntzen, baliabideen eta materialen pertsonalizazioa bideratuko duen ikasle bakoitzarengan oinarritutako ikuspegian.
- Gaur egun, inklusioa, funtsean, ikasgelaren jardunbidean oinarritzen da, eta kanpoan uzten dira inklusiorako garrantzitsuak diren beste zenbait hezkuntza-testuinguru.
- Desgaitasuna duten ikasleen parte-hartzea oso mugatua da oraindik, testuinguru edo jarduera batzuetan batez ere. Askotan, adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonak ez dute irteeretan edo txangoetan parte hartzen, eta hori sistemak premia jorratu beharreko diskriminazio larria da. Parte-hartzea lehen maila da pertsona bakoitzaren ikaskuntza- eta ekarpen-prozesuan. Eskubide ukalezina da.





Euskal hezkuntza-sisteman adimen-desgaitasuna, garun-paralisia eta autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten ikasleentzat dauden oztopoak

- Familiak zailtasunak hautematen dituzte, hezkuntza-komunitatearen aldetik, desgaitasunak dituzten ikasleen eta haien familien benetako premiak ulertzeko eta haiekiko enpatia izateko. Egoera horrek zehazten du, neurri handian, banakako hezkuntza-erantzunaren egituraketa: ratioak, giza baliabideen eta baliabide materialen esleipena, curriculumaren egokitzapenak, kontziliazioa errazteko neurriak... Gainera, pertsonak eskolatzean aurrera egin ahala, erantzuna artikulatzea gero eta konplexuagoa da.
- Ikastetxeetako pertsonak (zuzendaritzako kideak, irakasleak, laguntzako pertsonak, espezialistak, familiak) adimen-desgaitasunari, autismoaren espektroko nahasmenduei eta garuneko paralsiari buruz duten sentsibilizazioa eta prestakuntza oraindik ere ez da hezkuntza-testuinguru inklusiboak sortzeko nahikoa.
- Desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak ordezkatzan dituzten elkarten ekarpena oraindik ez da behar bezala baloratzen. Funtsezko eragilea da Sistemarentzat.
- Aldaketa- eta trantsizio-uneek erronka garrantzitsuak izaten dituzte beti pertsona bakoitzaren hezkuntza-ibilbidean. Harrera-protokoloak, informazioaren kudeaketa eta zentroen jarduketa bera ez daude behar bezala definituta, eta ez dira argiak. Haien diseinu egokia eta horren ondoriozko hedapena funtsezkoa da desgaitasunen bat duten ikasleen zaugarritasun handiagoa prebenitzeko.
- Familia bakoitzaren ekarpena, desgaitasuna duen senideari buruzko informazioari eta ezagutzari dagokionez, ez dago ondo txertatuta hezkuntza-prozesuan, eta horrek zaildu egiten du familiaren eta eskolaren arteko lankidetzeta.





Euskal hezkuntza-sisteman adimen-desgaitasuna, garun-paralisia eta autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten ikasleentzat dauden oztopoak

- Familien eta profesionalen arteko komunikazioak erantzun egokia eta denborei dagokienez doitu behar du pertsona bakoitzarentzat. Gaur egun, erronka izaten jarraitzen du. Lankidetzak hori ikuspegi desberdinek ematen duten informaziotik eta ezagutzatik elikatzen da, eta funtsezkoa da pertsona bakoitzaren garapenerako eta ikaskuntzarako.
- Bullying-ari aurrea hartzeko neurriak eta baliabideak ez dira nahikoak, oraindik ere, aurrea hartzeko eta lantzeko. Desgaitasuna duten pertsonen kolektibo bereziki kaltebera osatzen dute, eta jazarpen eta abusu kasuen aurrean babes sendoa behar dute.
- Bigarren hezkuntzaren ondoko hezkuntzan, sistemak malgutasun gutxi du oraindik prestakuntza-baliabide batzuetarako sarbideari eta eskaintza mugatuari dagokienez.
- Hezkuntzaren eta lan-eremuaren arteko loturari determinazio handiagoz heldu behar zaio eta maila guztietan (politikak, prestakuntza-eskaintza, enplegurako orientazioa...). Laguntza-figurak funtsezkoak dira ingurune batetik bestera errazago igarotzeko.
- Hezkuntza-etapan oraindik dauden oztopoek gainkarga sortzen dute familietan, eta horrek eragin negatiboa du haien osasun fisikoan eta mentalean.





Hezkuntza inklusiboan arrakasta izateko,
hobetzeko eta aurrera egiteko gakoak



Sistema

1. Adimen-desgaitasuna, autismoaren espektroko nahasmenduak eta garuneko paralisia dituzten ikasleei erantzuteko protokolo espezifikoa diseinatzea, ikusmen argiarekin eta ondo definitutako egiturarekin. Tresna hori oso baliagarria izango litzateke zalantza orokorrenak prebenitzeko, eta pertsona bakoitzari emandako erantzunaren kudeaketa profesional edo berritzegune bakoitzaren irizpideetan oinarrituta egotea saihestuko luke.
2. Ikastetxeen, familien, berritzeguneen eta elkarteen arteko koordinazio sistematikorako eta antolaturako mekanismoak antolatzea.
3. Familien beharrak, kezkak eta hobetzeko proposamenak entzuteko eta haiek adierazteko espazio eta topaketa gehiago sortzea.
4. Hezkuntzari eta desgaitasunari buruzko informazioa gune batean zentralizatzea, "Leihatila bakar" gisa, familiei informazioa eskuratzen, zalantzak argitzen eta izapideak egiten laguntzeko. Lengoaia eta antolaketa-egitura konplexuak dira guraso askorentzat, eta, azkenean, haientzat ezezaguna den munduan galdua sentitzen dira.
5. Hezkuntzako langile guztien sentsibilizazioari eta prestakuntzari bultzada ematea, zuzendaritza-taldeei arreta berezia eskainiz, haien zeregina funtsezkoa baita ikastetxeak eraldatzeko.





Hezkuntza inklusiboan arrakasta izateko, hobetzeko eta aurrera egiteko gakoak



Sistema

6. Bizitza osoan zehar ikasle bakoitzaren beharrak eta interesak kontuan hartuko dituzten ibilbide malguak eta pertsonalizatuak planteatzea.
7. Instalazioetako, ekipamenduko eta baliabideetako inbertsio publikoa handitzea, inguruneko oztopoak gainditzeko eta laguntza pertsonalizatuak emateko: igogailuak, komun egokituak, zentzumen anitzeko gelak, atsedenlekuak, komunikaziorako tabletak, teknologia, etab.
8. Baliabide egokiak, prestatutako langileak, protokoloak, komunikazio-kanalak eta informazioaren transmisio egokia ziurtatzea, profesionalen, ikasturteen eta hezkuntza-etapen aldaketek ikasleengan eragin negatiborik izan ez dezaten.
9. Unibertsitateko planetan eta ikasketetan, adimen-desgaitasunari, garun-paralisiari eta autismoaren espektroko nahasmenduei buruzko prestakuntza-moduluak txertatzea.
10. Hezkuntza- eta lan-munduak lotzeko formulak bilatzea. Bi testuinguruetan modu globalean pentsatzea eta jarraitutasuna ematea, adimen- edo garapen-desgaitasuna dutenek motibazioa gal ez dezaten eta alternatibak izan ditzaten. Horretarako, prestakuntza-sistema mistoak gara daitezke enpresetan praktikak eginez, edo lanpostuan sartzan lagunduko duten figura profesionalak susta daitezke. Horrek enplegua lortzea errazteko ibilbide pertsonalizatuak diseinatu eta enpresak sentzibilizatu behar direla esan nahi du, desgaitasuna duten pertsonak plantilletan sartzek duen balio erantsia ezagut dezaten.





Hezkuntza inklusiboan arrakasta izateko,
hobetzeko eta aurrera egiteko gakoak



Ikastetxea

1. Ikastetxeko IGEak eta familiak sentsibilizatzea, horretarako adimen-desgaitasuna, autismoaren espektroko nahasmenduak eta garuneko paralisia duten pertsonen elkarteak eta familiak kontuan hartuta.
2. Ikasle bakoitzarentzat erreferentziazko profesional bat izendatzea, hezkuntza-prozesuari egonkortasuna eta jarraitutasuna eman diezaion, aldi berean familiengan konfiantza eta segurtasuna sortuz.
3. Hezkuntza-etapa guztietan ikasleen prestakuntzaren eta ikaskuntzaren jarraipena eta jarraitutasuna erraztuko duten tresnak bultzatzea.
4. Elkarrekin koordinatzeko bideak sustatzea. Elkarreetako profesionalak aktiboa dira ikastetxeko profesionalen orientazioan, aholkularitzan eta prestakuntzan.
5. Ikastetxeko prestakuntza-saioetan adimen-desgaitasunari, autismoaren espektroko nahasmenduei eta garuneko paralisiari buruzko sentsibilizazioa eta prestakuntza barne hartzen direla ziurtatzea.
6. Eskura dauden baliabideak optimizatzea, jarduketa-protokoloak eta komunikazio-kanalak zehaztuta, informazioa ondo transmititzeko.
7. Instalazioak eta espazioak egokitzea, pertsona guztientzat lagunkoiak eta irisgarriak izan daitezen.
8. Ikasleen krisialdiei eta ezegonkortasunari aurre egiten lagunduko duten espazioak, jarduerak eta materialak sortzea.
9. Lanbide-profil bakoitzaren (tutorea, laguntzailea, orientatzailea, espezialistak...) gaitasunak definituko eta zehaztuko dituzten gidak eta dokumentuak egitea.
10. Bizikidetzeta hobetzeko eta eskola-jazarpena prebenitzeko protokoloak diseinatzea.





Hezkuntza inklusiboan arrakasta izateko,
hobetzeko eta aurrera egiteko gakoak



Ikasgela

1. Plangintzan, ikasgelako jardueraz gain, beste espazio batzuetako jarduerak ere sartzea: jolastokiak eta jolastorduak, jantokiak, ikastetxearen ingurunea, komunitatea, etab.
2. Aniztasuna eta pertsona bakoitzaren gaitasunak aitortzeko eta baloratzeko jarrerak sustatzea.
3. Ikasleak sentibilizatzeko ekintzak sustatzea, tutoretzen eta berdinen arteko laguntza-proiektuen bidez, balio eta gaitasun pertsonalak garatzeko. Dena ez da ezagutza akademikoa.
4. Ikasleak ikasgelako jarduera guztietan sartzea, sozializazioaren alde egiten duten profesionalekin, txangoetatik, Korrikatik, inauterietatik eta abarretatik kanpo gera ez daitezen.
5. Familiaren eta eskolaren arteko komunikazioa eta koordinazioa hobetzea eta familiek ikasturte bakoitzaren hasierako plangintzan parte hartzea bultzatzea.
6. Ikasle guztientzat hazteko eta garapen pertsonalerako baliagarriak izan daitezkeen baliabide eta material egokituak sortzea.
7. Ikasleen krisialdiei eta ezegonkortasunari aurre egiten lagunduko duten espazioak, jarduerak eta materialak sortzea.
8. Balioetan eta pertsona guztien eskubideen errespetuan oinarritutako hezkuntza sustatzea.
9. Ikasleak etengabe sentibilizatzea bullying-aren prebentzioan.
10. Ikasle guztiak baloratuak eta errespetatuak sentituko diren elkarlaneko giro positiboa egotea zaintzea.

